

Adimen artifiziala helduen euskalduntzean



Irakasleen ikuspegia zabaldu nahi da, hizkuntzen ikas-irakaskuntzan eta euskararen alorrean dauden aukerak, mugak eta erronkak aintzat har daitezen.

Uzt. 02 - Uzt. 04 2025

Kod. H09-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 02 - Uzt. 04 2025

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

30 ordu

Irakaskuntzako profesionalentzat jardueraren eskola-ordu kopurua

Zehazteke / Pendiente de confirmación ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Puri-purian dago adimen artifizialaren gaia gizartearen eremu guztietan. Dena den, hastapenetan gaude helduen euskalduntzearen sektorean eta, oro har, hezkuntzan; hori horrela, oso mugatua da oraindik baliabide honen erabilera, bai duen benetako hedapenaren aldetik, bai egin ohi den erabilera motaren ikuspegitik.

Horregatik, lau zutabe nagusiren inguruan ardaztuko da Uda Ikastaroa adimen artifizialaren gaia lantzeko: hezkuntzaren munduan, euskararen esparruan, hizkuntzen ikas-irakaskuntzan eta helduen euskalduntzean. Edonola ere, elkarren arteko loturak eta zubiak azalaraziko dira.

Irakasleen ikuspegia zabaldu nahi da, hizkuntzen ikas-irakaskuntzan eta euskararen alorrean dauden aukerak, mugak eta erronkak aintzat har daitezzen. Horretarako, adituak eta aldi berean hurbilekoak diren profesionalen ekarpenak bilduko dira, betiere alderdi praktikoa eta partaideen gogoeta, inplikazioa eta elkarerreragina sustatuta eta azpimarratuta.

Helburuak

Hezkuntza eremuan adimen artifizialak izan dituen eta izan ditzakeen erabilerak ezagutzea eta horren inguruko hausnarketa sustatzea.

Adimen artifizialaren erabileraren berezitasunak eta aukerak identifikatzea euskararen esparruan.

Adimen artifiziala hizkuntzen ikas-irakaskuntzan baliatzeko moduak ezagutzea, baita aukerak eta erronkak aztertzea ere.

Irakasleei adimen artifiziala eguneroko jardunean txertatzeko baliabideak eta ideiak eskaintzea, jostaketa hutsetik harago doan erabilera didaktikoa sustatzeko.

Ikastaroko saioetan aurkezten dena partaideek praktikan jartzeko aukera izatea.

Lankidetzak



Programa

2025-07-02

09:00 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Iñaki Murua Anzola HABE - Teknikaria
09:15 - 09:30	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: Ibone Bengoetxea Otaolea Eusko Jaurlaritza - Lehenengo lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua
09:30 - 11:00	“Adimen artifiziala eta hezkuntza: nondik gatoz eta non gaude” Beñat Erezuma Arisketa Hezkuntza saila. Eusko Jaurlaritza. - Irakaslea
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:30	“Adimen artifiziala eta euskara: zer dugu eskuartean?” Ikuspegi orokorra Xabier Arrieta Goiri EJIE
12:30 - 13:30	Mahai ingurua: “Itzulunguru proiektua euskaltegietan eta bigarren hezkuntzan” Iñaki Murua Anzola HABE - Teknikaria (Moderatzailea) Asier Basurto Arruti Soziolinguistika Klusterra - Teknikaria Aitor Ogiza Totorikaguena AEK - Irakaslea Beñat Erezuma Arisketa Hezkuntza saila. Eusko Jaurlaritza - Irakaslea
15:30 - 16:00	“AA eta euskara: tresnak eta garapenak (I)” Elhuyarren ikuspegia Aitzol Astigarraga Pagoaga Elhuyar - Orai adimen artifizialeko zentroko koordinatzailea
16:00 - 16:30	“AA eta euskara: tresnak eta garapenak (II)” HiTZ zentroaren ikuspegia Oier Lopez de Lacalle Lekuona HiTZ Zentroa
16:30 - 17:00	“AA eta euskara: tresnak eta garapenak (III)” Vicomtech-en ikuspegia María Arantzazu del Pozo Echezarreta Vicomtech - Ahotsaren eta Lengoia Naturalaren Prozesamendurako Teknologien Zuzendaria
17:00 - 17:15	Sintesia

2025-07-03

09:00 - 10:00	“Planificar con cerebro digital [Garun digitalaz planifikatzea]” Manuela Mena Octavio The Language House - Zuzendari akademikoa M. Vicenta González Argüello Universitat de Barcelona - Irakaslea
10:00 - 11:00	“La tecnología toma la palabra [Teknologiak hartzen du hitza]” Manuela Mena Octavio The Language House - Zuzendari akademikoa M. Vicenta González Argüello Universitat de Barcelona - Irakaslea
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:30	““La nueva cara de la evaluación: más allá del papel y lápiz” [Ebaluazioaren aurpegi berria: paperaz eta arkatzez harago]” Manuela Mena Octavio The Language House - Zuzendari akademikoa M. Vicenta González Argüello Universitat de Barcelona - Irakaslea
12:30 - 13:30	“Materiales que hablan el idioma del futuro[(Etorkizuneko hizkuntza erabiltzen duten materialak]” Manuela Mena Octavio The Language House - Zuzendari akademikoa M. Vicenta González Argüello Universitat de Barcelona - Irakaslea
13:30 - 13:45	Sintesia

2025-07-04

09:00 - 10:00	“Adimen artifiziala HABEren esparruan” Adimen artifizialaren erabilera EAEko helduen euskalduntzean ikerketa-lana Martin Txintxurreta Albizua HABE - Teknikaria Adimen artifiziala Ingura proiektuan Eskarne Lopetegi Zalakain HABE - Metodologia eta Edukien arloko burua
10:00 - 11:00	“Euskara-irakasleen esperientziak (I)” Jokine Lizarralde Sagastizabal Mondragon Lingua - Irakaslea Igor Salutregi Gabiola AEK - Irakaslea
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:30	“Euskara-irakasleen esperientziak (II)” Agustin Urtelai Agirre Gabriel Aresti euskaltegia - Irakaslea Marga Ibañez Ramos Barakaldoko Udal Euskaltegia - Irakaslea
12:30 - 13:30	Mahai ingurua: “Eta gerora begira?” Iñaki Murua Anzola HABE - Teknikaria (Moderatzailea) Amaia Arroyo Sagasta Mondragon Unibertsitatea - Irakaslea Igor Odriozola Sustaeta HABE - Hizkuntza Teknologien arloko burua

Unai Martinez de Lizarduy Stürtze | Skootik - CEO

13:30 - 13:45

Itxiera

Iñaki Murua Anzola | HABE - Teknikaria

Zuzendaritza



Iñaki Murua Anzola

HABE, Teknikaria

Hezkuntza-Zientzietan lizentziatua eta doktorea (UNED). Helduen prestakuntzaren alorrean aritu da ibilbide profesional osoan, euskararen ikas-irakaskuntzan batez ere. Basauriko Udal Euskaltegia ia 10 urtez irakasle (eta hasierako urteetan zuzendari) izan ondoren, 1995ean hasi zen HABEn teknikari gisa, harrez geroztik zeregin desberdinetan jardun duelarik. Azkenaldi honetan, Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza alorrean; besteak beste, erakunde horrek plazaratzen dituen argitalpen teknikoen koordinatzaile-editore (eHIZPIDE, Itzulpen Saila) eta Irakasbil webguneko editoreetako bat. Teknologien eta irakasleen prestakuntzaren inguruan ardaztu dira bere ikerketa eta argitalpenak; ikas-ziberkomunitateak eta partaidetza pasiboa dira gai nagusiak eremu horietan.


Irakasleak



Xabier Arrieta Goiri

EJIE, Sociedad Informatica del G.Vasco

Informatika Ingeniaria formakuntzaz (Deustuko Unibertsitatea). EHU/UPVko IKT Gerenteorde 2004tik 2012ra. IZENPEko Zuzendaria 2013-2014, Eusko Jaurlaritzako Informazio teknologien Zuzendaria 2014tik 2024 arte. Gaur egun EJIEko zuzendaritzan. Armentia ikastolako presidentea zortzi urtetan, Euskal Herriko ikastolen Idazkaria hamar urtetan eta .EUS fundazioko sorreran ibilitakoa. Euskararen Aholku Batzordeko Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzordeko kide azken zortzi urteetan. Eusko Jaurlaritza eta EJIE lanean emandako urteetan harreman estua izan du teknologietan euskararen presentzia bermatzeko lanetan; alderdi horretatik, egitasmo esanguratsuena eta eragin handia izan duena sare neuronalen eta adimen artifizialaren bidez sortutako "Itzuli" itzultzailea izan da.



Amaia Arroyo Sagasta

HUHEZI - Mondragon Unibertsitatea, Irakaslea eta ikerlaria

Amaia Arroyo Sagasta Komunikazioan eta Hezkuntzan doktorea da, eta Doktoregoko Sari Berezia eskuratu zuen. Gainera, UNEDen Komunikazioa eta Hezkuntza Sarean masterra eta Mondragon Unibertsitatean IKTak hezkuntzan masterra egin zituen, eta hasierako formazio gisa Hezkuntza Bereziko Irakasle Ikasketak. 15 urte baino gehiago eman ditu irakasleak teknologia digitalaren erabilera pedagogikoan formatzen. Irakasle, aholkulari, ikasmateriale egile eta editore lanak egin ditu, beti ere, ikuspegi teknopedagogikoa ardatz hartuta. Nazioarteko kongresuetan parte hartu du eta akademian modu aktiboan dihardu, artikuluak, liburu-kapituluak eta liburuak argitaratzen. Estatu eta Europa mailako proiektu lehiakorretan ere parte hartzen du, eta komunitateko kide aktiboa da, Edutec eta RUTE bezalako sareetan parte hartuz. Gaur egun, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) irakaslea eta ikerlaria da. KoLaborategian, Digitalizazioa arloko ikerketaren koordinatzailea da, baita Lehen Hezkuntzako Gradu Berrikuntza Digitala aipamenarena ere. Bere ikerlerroak honakoa hauek dira: konpetentzia digitala hezkuntzan, ikaskuntza inguruneak eta ekosistemak eta diseinu teknopedagogikoa.



Ikasketaz Ingeniaria Informatikan eta doktorea Robotika eta Adimen Artifizialean (EHU). Egun Orai NLP zentroko koordinatzailea da, hizkuntzaren prozesamendu automatikoan (NLP) espezializatutako Elhuyarren ikerketa-zentroa. Hizkuntzan oinarritutako adimen artifizialean ikertzen du Oraik, ondoko plataformen oinarri teknologikoak garatu ditu: Elia itzultzaile automatikoa (elia.eus), Aditu azpititulazio eta transkripzio sistema (aditu.eus) eta TTSneuronala hizketa-sintesiko sistema (ttsneuronala.elhuyar.eus). 2024an Llama-eus-8B hizkuntza-eredu handia (LLM) plazaratu zuen, euskara ulertu eta sortzeko gai den hizkuntza eredua. Esaldi bakarrera ekarrita, gure hizkuntzaren biziberritzea eta garapena sustatuko duten teknologiak garatzea da Orairen xedea.



Asier Basurto Arruti

Soziolinguistika Klusterra

Soziologoa eta Hizkuntza-plangintzan unibertsitateko espezialista. Soziolinguistika Klusterrean dihardu euskara biziberritzeko ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetan. Landutako gaien artean daude gazteen hizkuntza-erabilera, behaketa bidez hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologiak eta hizkuntza-erabilera eta komunikazio irizpideen arteko harremana, besteak beste. Itzultzaile neuronalek euskararen erabileran duten eragina ikertzen duen Itzulinguru proiektuaren koordinatzailea da.



María Arantzazu del Pozo Echezarreta

Fundación Vicomtech

Ahots eta Hizkuntza Teknologien Zuzendaria da Vicomtech-en, Adimen Artifizialean espezializatutako ikerketa aplikatuko zentroan. Cambridgeko Unibertsitatean egin zituen Ahots eta Hizkuntza Teknologietan Masterra eta Doktoregoa, eta gaur egun 20 pertsonako taldea gidatzen du, teknologia horien ikerketan, garapenean eta industriara transferentzian lan egiten duena. Eskualde, estatu eta Europa mailako ikerketa-proiektu eta kontratu anitz koordinatu eta ikertzaile gisa parte hartu du. Bi patente eta 50 argitalpen baino gehiago ditu ahotsaren eta hizkuntza naturalaren teknologiaren arloan, nazioarteko aldizkari eta kongresu nagusietan. Transferentzia mailan, nabarmendu daiteke besteak beste bere taldearen teknologiak oinarri direla bai Eusko Jaurlaritzaren Itzuli itzultzaile neuronalean, bai EITBk erabiltzen duen azpidatzi automatikoak sortzeko plataforman.



Beñat Erezuma Arisketa

Unamuno BHI

Ikasketei dagokienez, Ingeniaritza Tekniko Industrial, elektronikan espezializazioa eta goi mailako Ingeniaritza, Antolakuntza Industrialean espezializazioa. Automozioan ingeniari-lanetan aritu ondoren, 2008tik Teknologia eta Matematika irakaslea izan da hainbat urtez. STEAM koordinatzailea izan da ikastetxean eta STEAM eta Digitalizazio aholkularia lanetan aritu da hiru urtez Berritzeguneetan. Azken urteotan Elhuyar Zientzia Azoka eta STEAM Euskadi sarietako epaimahaikide ere izan da. Halaber, adimen artifiziala eskolan gaiaz hezitzaile izan da, ikasleek teknologia horren atzean zer dagoen ikas dezaten. Adimen artifizialaz sortutako "Artiadi" izeneko olerki-liburua argitaratu zuen 2021. urtearen amaieran. Bere lanak eta artikuluak webgunean (berezuma.com) eta Telegram kanalean (t.me/teknologiapilulak) zabaltzen ditu.



M. Vicenta González Argüello

Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan doktorea. Bartzelonako Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateko Hizkuntza, Zientzia eta Matematikaren Hezkuntzako departamentuko irakaslea da. Bertan, gaztelania irakasten du Lehen Hezkuntzako Graduan, materialen azterketa eta diseinua ELEko irakasleen Prestakuntza Masterrean, eta gaztelaniaren didaktika Bigarren Hezkuntzako irakasleen Prestakuntza Masterrean. Bere ikerketa-lerroak honako gai hauetan ardatzen dira: irakasleen prestakuntzan praktika gogoetasuan, gamifikazioan eta hizkuntzen irakaskuntzan IKTen erabileran.



Marga Ibañez Ramos


Irakasle-ikasketak egin zituen Euskal Filologia (EHU, 1985) eta Atzerriko Hizkuntza espezializazioan (MU, 2017); Irakaskuntza Testuinguru Eleanitz eta Multikulturaletan masterduna (MU, 2021) eta doktoregaia Hezkuntza Berrikuntzan Mondragon Unibertsitatean. Urte luzeetan, 1983tik egun arte irakasle lanetan ibili da, azken 21 urteetan Barakaldo udal euskaltegian; errefuxiatuentzako ELE eskolak ematen ere aritzen da. Azken urteetan, HABEren erakundearekin lankidetzan jardun du irakasleentzako prestakuntzan online ikastaroetan tutore gisa eta horretarako materialaren egokitzapenean. UEUko Glotodidaktika Sailburua eta Soziolinguistika sailaren kidea da. e-Hizpide aldizkarian baditu zenbait

artikulu argitaratuak egin dituen lanetan oinarrituta. Horretaz gain, irakasle lanetan ari den euskaltegiaren sare-sozialetarako “Hezkuntza-pilulak” egiten ditu astero. Hizkuntzen irakaskuntzaren berrikuntza-eremuan, AA nola txertatu bere interesguneetako bat da, betiere ikasleen autonomia, agentzia eta parte-hartzea sustatzeko. Aaren hastapenetan gauzatutako jarduera baten berri ere eman zuen Irakasbil webgunean.



Jokine Lizarralde Sagastizabal

Itzulpengintza eta Interpretazioan lizentziatua (EHU). Turismo eta Informazioan teknikaria (CEBANC-CDEA). Hizkuntzen ikas-irakaskuntzari buruzko zenbait ikastaro eginak ditu. Gaur egun, euskara-irakaslea eta turorea da Mondragon Linguan; proiektu-kudeatzaile didaktikoa ere bai. Hizkuntza-ikertzailea eta esparru desberdinetan ingeles-irakaslea ere bai erakunde berean . HABEko Egiaztatze Deialdietan B1 mailako aztertzailea.



Eskarne Lopetegi Zalakain

HABE

Eskarne Lopetegi Zalakain (Donostia, 1964). Euskal filologian lizentziatua (Deustuko unibertsitatea, 1982-87). HABEren Didaktika zerbitzuko teknikaria eta ikas-material egilea. 2010az geroztik HABEren Metodologia eta Edukiak arloko burua. Egitasmo hauen sortzaile eta partaidea. Egun arduraduna: Ikasbil ataria, Primeran euskara ikasteko metodoa (2011-2024) eta Ingura euskara online (2021-2025) ikas-plataforma.



Oier Lopez de Lacalle Lekuona

Euskal Herriko Unibertsitatea, Irakasle Atxikia

Informatikan ingeniaria da formakuntzaz, eta hizkuntza prozesamenduan doktorea. Euskal Herriko

Unibertsitateko irakasle atxikia da Adimen Artifizialeko graduan eta Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua masterrean. Ikerketari dagokionez, ikertzailea da HiTZ zentroan eta IXA taldean. Aurretik, 3 urteko doktorego ondoko egonaldia egin zuen Edinburgoko unibertsitatean Eusko Jaurilaritza eta IkerBasquen laguntzari esker. Hizkuntza teknologien ikerketan ibilbide luzea eginikoa da eta, ondorioz, adimen artifiziala arloko nazioarteko aldizkari eta kongresu nagusietan argitaratu ditu bere lanak, eta batzorde-programetan parte hartu ohi du. Estatu eta Europa mailako ikerketa-proiektuak koordinatu eta ikertzaile nagusi gisa parte hartu du. Bere ikerketa-interesen artean baliabide urriko hizkuntzetarako hizkuntza-ereduak, ikasketa multimodala eta informazio-erauzketa automatikoa daude, besteak beste.



Unai Martinez de Lizarduy Stürtze

Goi Mailako Ingeniaria eta Ingeniaritzan, Kontrolean, Automatizazioan eta Robotikan doktorea EHUn. Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna. Badu Trebakuntza Pedagogikoko Ziurtagiria. AArekin lotutako zenbait enpresaren sortzaileetako bat, Adimen Artifizialeko zuzendaria da PKF-Attest-en gaur egun. 14 urte baino gehiago eman ditu EHuko Ingeniaritza Eskolan irakasle. Ikerketa-proiektuetan eta nazioarteko kongresuetan ere hartu du parte. Baditu argitalpenak inpaktu-aldizkarietan. Horrez gain, dibulgazio-izaerako liburu eta artikulua ugari ere idatzi ditu.



Manuela Mena Octavio

Itzulpengintza eta Interpretazioan lizentziatua (Universidad Complutense de Madrid) eta Neuropsikologiako masterra du (UNIR, Universidad Internacional de la Rioja). Halaber, badu Certificate in English Language Teaching to Adults (CELTA) agiria eta aditu-agiria du Online Irakaskuntzan (UNIR). Gaur egun, "Feel the Language" hezkuntza-aholkularitzari buruzko enpresa eta "The Language House" hizkuntza-eskola zuzentzen ditu. Language House Campo de Criptanan. Bere zuzendaritza-erantzukizunez gain, Unibertsitateko Irakasleentzako Nazioarteko Masterrean eskolak ematen ditu (SDI München) eta Gaztela-Mantxako Centro de Formación del Profesorado irakasle gisa hartzen du parte. Bere ikerketa-arloak gamifikazioa, sormena eta bigarren hizkuntzen ikas-irakas prozesuari aplikatutako adimen artifiziala dira. Arlo honetan, zenbait prestakuntza-saio eman ditu, Azken argitalpenen artean aipatzekoak dira "ChatGPT as an AI L2 teaching support: A case study of an EFL teacher" artikulua eta "Guía práctica de uso de IA para profes de ELE" liburua. Era berean, material didaktikoa eta testuliburuak diseinatu ditu, eta ingelesa atzerriko hizkuntza gisa irakatsi eta ikasteko bloketan hartzen du parte.



Iñaki Murua Anzola

HABE, Teknikaria

Hezkuntza-Zientzietan lizentziatua eta doktorea (UNED). Helduen prestakuntzaren alorrean aritu da ibilbide profesional osoan, euskararen ikas-irakaskuntzan batez ere. Basauriko Udal Euskaltegian ia 10 urtez irakasle (eta hasierako urteetan zuzendari) izan ondoren, 1995ean hasi zen HABEn teknikari gisa, harrez geroztik zeregin desberdinetan jardun duelarik. Azkenaldi honetan, Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza alorrean; besteak beste, erakunde horrek plazaratzen dituen argitalpen teknikoak koordinatzaile-editore (eHIZPIDE, Itzulpen Saila) eta Irakasbil webguneko editoreetako bat. Teknologien eta irakasleen prestakuntzaren inguruan ardaztu dira bere ikerketa eta argitalpenak; ikas-ziberkomunitateak eta partaidetza pasiboa dira gai nagusiak eremu horietan.



Igor Odriozola Sustaeta

HABE

Telekomunikazio Ingeniaritzan doktorea (UPV/EHU), HABEko Hizkuntza Teknologien Arloko arduraduna da egun. Helduen irakaskuntzan aritua 2002tik 2007ra bitartean (aek-n irakasle), baita Bilboko Ingeniaritza Eskolan ikertzaile eta irakasle ere 2007 eta 2019 bitartean. "Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua (HAP)" programaren barnean tesia eginik, euskara ikasteko softwareetan hizketa-ezagutzako sistemen inplementazioan oinarritutako tesia aurkeztu zuen 2019an. Ordutik, HABEn dihardu egiaztatze-azterketen antolaketan eta azterketotan biltzen diren ekoizpenen kudeaketan, hizkuntza-teknologiak garatzeari begira.




Aitor Ogiza Totorikaguena

AEK


Geografia eta Historian lizentziaduna (EHU), 30 urte luze daramatza helduen euskalduntzean. Irakasle lanaz gain, azken 25 urteetan AEKren Didaktika Zerbitzuan dihardu, bai irakasleen formazioan, bai

ikasmaterialen eta ikastaro berezien diseinuan. Eskarmentu horren testuinguruan, AEkrako ekoitzitakoez gain, HABEk argitaratutako "Primeran!" saileko hainbat materialen sorkuntzan aritu da (2015-2020). 2022tik aurrera, C2 mailako tutore online dabil AEKren e-uskaltegian. 2023an "Itzulinguru" egitasmora batu zen AEKren izenean, eta helduen euskalduntzearen arloa koordinatu du ikerketa-lan horretan.



Igor Salutregi Gabiola

Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna (UPV-EHU). Web-diseinuan eta Multimedian masteduna. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzetako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate masterduna. Euskara arloan irakasteko glotodidaktika ikastaroa (AEK) eta ELEko irakasle izateko oinarrizko ikastaroa (Cervantes Institutua). Gidoilari-esparruko prestakuntza. Gaur egun, euskara irakaslea da AEKn. Esperientzia handia du editore, gidoilari edota errealizadore gisa telebistako programetan eta ikus-entzunezko beste produktu batzuetan. Ikasi eta lan egin bitartean, futbolari gisa ere aritu izan da, maila profesional/erdi-profesionalean.



Martin Txintxurreta Albizua

Euskal Ikasketetan graduatua da (EHU, 2021). Euskararen Jabekuntza, Kudeaketa eta Hizkuntza Praktikak XXI. Mendean masterra egin du (EHU, 2024), adimen artifizialak EAEko helduen euskalduntzean duen presentzia aztertu du amaierako lanean. Gaur egun, hizkuntzaren didaktikako teknikari gisa egiten du lan HABE erakundearen Hizkuntza Teknologien Arloan.



Agustin Urtzelai Agirre

Euskal Filologian lizentziaduna (EHU). Antzerkiari buruzko prestakuntza badu (Gaitzerdi Antzerki Taldea). 1990tik euskara-irakaslea Gabriel Aresti euskaltegian. Mota guztietako taldeak gidatu ditu bertan; bestelako proiektuetan ere aritua da (Bilboko Epaitegiak, Ur Partzuergoa, BBK, Ertzaintza, Bilboko Udalaren B1ribilko proiektua, BOGA proiektua). HABEko Egiaztagitza Deialdietan aztertzaile. Gaitzerdi taldean antzezle, gidoigile, sortzaile eta zuzendaria izan da 10 urtez eta Bilbo Hiria irratian

esatari 3 urtez.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-30 ARTE	2025-07-02 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	84,00 EUR
Orokorra	-	120,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	102,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	84,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	-	102,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	-	102,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	102,00 EUR
Donostia Kultura	-	102,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	102,00 EUR
Elkar	-	102,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa